



## Trebakuntza 2009/03: ERE PARTIKULA

Udal idazki askotan, **ERE partikula** ez da zuzen erabiltzen. Askotan, gaizki erabiltzen da, lekuz kanpo; batez ere, ahozkoan. Hona hemen zuzendu beharreko akatsak:

**OHARRA:** asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

### AZALPEN OROKORRA

**ERE partikulak** bi ezaugarri nagusi ditu:

- a) Perpausaren **osagai bati egiten dio erreferentzia**
- b) Osagai horren **atzean** eta **ondo-ondoan** kokatzen da beti.

### OHIKO AKATSAK

1. *\*[Ahozkoan] Koldo gurekin etorriko da. **ERE** Ane etorriko da.*
2. *\*[Elkarrizketa batean] Ni etxera noa. Itxoin, ni **ERE** noa.*
3. *\*Idatziz ez ezik, ahoz adierazi genion abokatuari kontratua eten diogula.*
4. *\*[Elkarrizketa batean] Antxon lanera joan da. Txomin **ERE**.*
5. *\*[Ahozkoan] Iratxek ikastaroa egin du. **BAITA ERE** Mirenek.*
6. *\*[Ahozkoan] **BAITA ERE** esan beharra dago XXX alderdiak mozioa garaiz kanpo aurkeztu duela, eta...*
7. *\*[Ahozkoan] Ez da inor etorri **ERE**.*
8. *\*Pentsatu ez ezik, **ERE IDATZI EGIN** dut.*

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uema.org](http://www.uema.org)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95  
[bizkaia1@uema.org](mailto:bizkaia1@uema.org)

Done Petri 14, behea  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72  
[gipuzkoa2@uema.org](mailto:gipuzkoa2@uema.org)



## ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. Azalpen orokorrean adierazi dugunez, **ERE partikula** beste elementu baten atzean kokatu behar da. Hartara, **ez da zuzena esaldi hasieran jartzea.**

Ad. *[Ahozkoan]* Koldo gurekin etorriko da. **Ane ere** etorriko da.

2. **ERE aditz trinko baten aurrean** badoa (ad. dator, daukat, doa, dabil...), **aditzak BA- hartzen du.**

Ad. *[Elkarrizketa batean]* Ni etxera noa. Itxoin, **ni ere BAnoa.**

3. **Aurretik EZ EZIK** partikula erabili badugu, derrigorrezkoa da esaldiaren **bigarren zatian ERE** partikula erabiltzea.

Ad. Idatziz **ez ezik, ahoz ERE** adierazi genion abokatuari kontratua eten diogula.

4. BAI partikulak aditza ordezkutzen du; beraz, **ez da zuzena aditza eta BAI batera erabiltzea.**

Ad. *[Elkarrizketa batean]* Antxon lanera joan da. Txomin **ERE BAI.** (edo Txomin **ERE joan da.**)

5. eta 6. **Ez da zuzena** ERE partikula eta ERE partikularen aldaerak **esaldi hasieran** jartzea: **BAITA ERE, EZTA ERE, ERE BAI, ERE EZ...**

Ad. *[Ahozkoan]* Iratxek ikastaroa egin du. Mirenek **ERE BAI** (edo **BAITA Mirenek ERE**).

Ad. *[Ahozkoan]* **HORREZ GAIN,** esan beharra dago XXX alderdiak mozioa garaiz kanpo aurkeztu duela, eta...

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uema.org](http://www.uema.org)



**Bigarren esaldian** ERE partikula erabili nahi izanez gero, **aukera hau** dugu:

Ad. XXX alderdiak mozioa garaiz kanpo aurkeztu duela **ERE** esan beharra dago, eta...

7. ERE partikula **indartu nahi duen elementuaren ondoan** kokatu behar da.

Ad. *\*[Ahozkoan]* Ez da inor **ERE** etorri (**Inor** indartu nahi da, ez etorri).

8. Erreferentziatzko osagaia aditza bada, **EGIN erabili** edo **aditza errepikatu** behar da. Hona hemen adibidea:

Ad. *\*Pentsatu ez ezik,* **IDATZI ERE EGIN DUT** (edo **IDATZI ERE IDATZI DUT**).

\*\*\*\*\*  
\*\*\*\*\*

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariek:

- Telefonoz: 943260372 (Imanol) eta 946279195 (Iratxe)
- Posta elektronikoz: [gipuzkoa2@uema.org](mailto:gipuzkoa2@uema.org) (Imanol) eta [bizkaia1@uema.org](mailto:bizkaia1@uema.org) (Iratxe)

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uema.org](http://www.uema.org)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95  
[bizkaia1@uema.org](mailto:bizkaia1@uema.org)

Done Petri 14, behea  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72  
[gipuzkoa2@uema.org](mailto:gipuzkoa2@uema.org)